

## 14/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2023KO ABENDUAREN 18AN EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BERTARATUTAKOAK:**

##### **ALKATEA**

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### **ZINEGOTZIAK:**

Ana Eloseggi Artola (EH Bildu taldea)  
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)  
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)  
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)  
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

##### **IDAZKARIA:**

Erika Sagarzazu Camino

##### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Anoetako Udaletxean, 2023ko abenduaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta ezohiko osoko bilkura honi ohiko bilkura bati dagokion tratamendua emateko arrazoiak azaldu ditu. Izan ere, hileko azken asteartea (Osoko Bilkuraren ohiko bilkurak egiteko erabakitako eguna) abenduaren 26an erortzen denez eta, horregatik, Udalbatzako kide asko, Idazkaria barne, Gabonetako oporretan egongo direnez, Udalbatza osatzen duten talde politikoen artean adostu da Osoko Bilkura aurreratzea eta horri ohiko bilkura bati dagokion tratamendua ematea, korporazioko kideen kontrol-eskubideak eta -eginkizunak bermatuta gera daitezen, egindako dekretuen eta Alkatetzaren ebazpenen bidez altxatutako eragozpen-txostenen kontu emanez, mozioak sartuz eta galde-erregutarako txanda emanez.

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## **I. EBAZPENAK**

### **1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**



Ikusita 2023ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuraren akta bukatu gabe dagoela gai-zerrendaren 5. puntuari dagokionez, aho batez adostu dute ez onartzea oraingo honetan azken bilkurari dagokion akta eta datorren Osoko Bilkuran, oraingo Osoko Bilkurarenarekin batera onartzea, hala badagokio.

## **2.- ANOETAKO UDALAREN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA INDARGABETZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari eta horrek 2023ko abenduaren 13an egindako txostenaren edukiaren berri eman du:

[...]

### **TXOSTENA**

#### **Aurrekariak**

1. 2022ko martxoaren 31n Alkatetzak Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzeko proposamena egin zuen.
2. 2022ko apirilaren 5ean, Pertsonaleko Batzordeak proposamenaren aldeko irizpena eman zuen.
3. 2022ko apirilaren 29an egindako ohiko Osoko Bilkuran, Udalbatzak 2022-2026 aldirako Anoetako Udalaren giza baliabideen Plan Estrategikoa behin behinean onartu zuen.
4. 2022ko maiatzaren 12ko 89. GAOn, behin behineko onarpena argitaratu zen, eta jendaurrean jarri zen 30 laneguneko epeaz.
5. Alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2022ko ekainaren 15eko 135. GAOn, “Anoetako Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren lehen fasea” behin betiko onartuta geratu zen.
6. “Anoetako Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak” erretiro aurreraturako pizgarriak jasotzen ditu.

#### **Legedi aplikagarria**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean, TAOL).

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa erreformatzeko neurriei buruzkoa.
- 861/1986 Errege Dekretua, apirilaren 25ekoa, Toki Administrazioari funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- Udalhitz, Euskadiko tokiko erakundeetako lan harremanetarako protokolo markoa.

### **Arrazoibide juridikoak**

Erretiro aurreratua sustatzeko sarien edo pizgarrien legezkotasunari buruzko eztabaida aspaldikoa da.

Horri buruzko epai ugari daude, "sari" horiek ezartzearen aurkakoak. Adibidez, 2018ko martxoaren 20ko Auzitegi Gorenaren 2747/2015 errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Salarena (459/2018 zk.). Aitzitik, aurreko horrek eta beste batzuek aukera ematen zuten Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren 37. artikulua arabera klase pasiboekin edo funtzionario erretiratuekin zerikusia duten gaien negoziatio kolektiboa egiteko, eta aitortzen zuten, halaber, l'aguntza-neurri orok kostu ekonomikoak ekar ditzakeela eta horrek ez duela esan nahi ordainsari guztiak kontuan hartu behar direnik". Horrek atea ireki zuen gizarte-ekintzako programaren barruan "gizarte-laguntza" hori berariaz sartzeari, ez baitzen "ordainsaritzat" hartzen.

Hala ere, zalantza hori konponduta geratu da 2022an zehar emandako hiru epaitan: ekainaren 7ko 682/2022 epaia, 2258/2021 kasazio-errekurtsioa; apirilaren 5eko 421/2022 epaia, 850/2021 kasazio-errekurtsioa; eta martxoaren 16ko 344/2022 epaia, 4444/2020 kasazio-errekurtsioa. Epai horiek, oro har, aurrekoa berrestez gain, honako hau ezarri dute, besteak beste: “... *aunque dicho precepto se ubica en el Capítulo IV cuya rúbrica es "acción social", lo cierto es que de lo convenido se deduce, conforme a lo dicho por esta Sala en la sentencia antes glosada, que no compensa una circunstancia sobrevenida propia de las que se atienden acudiendo a medidas asistenciales en el sentido antes expuesto, sino que se vincula el premio o recompensa a un "hecho natural, conocido e inevitable de la relación funcional, por lo demás no específico del Ayuntamiento sino común a toda la función pública, una gratificación".* Era berean: “... *El problema de fondo que late en este recurso de casación ha sido ya resuelto por esta Sala en una pluralidad de sentencias, incluida la citada en la sentencia de primera instancia. Es criterio jurisprudencial claramente establecido que las gratificaciones -cualquiera que sea su denominación en cada caso- por jubilación anticipada previstas en acuerdos de entidades locales tienen naturaleza de retribución y, por consiguiente, sólo pueden considerarse ajustadas a Derecho en la medida en que*

*tengan fundamento en alguna norma legal de alcance general, relativa a la remuneración de los funcionarios de la Administración local. Dado que en los casos resueltos hasta la fecha no se había identificado ninguna norma de cobertura, la conclusión fue que dichos acuerdos de las entidades locales eran inválidos. A este mismo criterio debe ahora estarse, pues en este caso no se aprecia ninguna diferencia relevante. En este orden de consideraciones, debe señalarse que la arriba mencionada disposición adicional 21ª de la Ley 30/1984, aun previendo medidas de incentivación de la jubilación anticipada, no hizo una regulación precisa para el supuesto de que dichas medidas tuvieran carácter retributivo y, por ello, no satisface la exigencia de que las gratificaciones por jubilación anticipada tengan cobertura en una norma legal de alcance general.”*

Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak ere, Zerbitzu Juridikoen eta Lurralde Koordinazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, txostena eman zuen 2022ko urriaren 11n tokiko funtzionarioen alde beren lan-baldintzak zehazteko akordioetan aitortutako pizgarrien, sarien edo haborokinen legezkotasunaren gainean. Txosten horretan ondorengo ondorioak jasotzen ziren:

“...

1. TAOLen 93. artikuluan, TATBren 153. artikuluan eta 861/1986 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki Administrazioen zerbitzura dauden funtzionarioek ezin dituzte jaso EPOEren I. tituluko II. kapituluan ezarritako ordainsariak baino gehiago, eta ezin da ordainsari-gehikuntzarik adostu, baldin eta, oro har, soldata-masa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean urtero finkatutako mugak baino handiagoa bada.

2. Funtzionario publikoen negoziazio kolektiborako eskubidearen edukia EPOEren 37. artikuluan ezarritako gaietara mugatzen da, eta inola ere ez du hartzen lege-erreserbaren mende dauden gaietara, eta gai horiei buruz lor daitezkeen akordioak ez dira eraginkorrak izango.

Funtzionario publikoen ordainsariei dagokienez, bai haien urteko gehikuntza bai egitura lege-erreserbaren mendeko gaiak dira ( TREBEPeko 21 ss.). Horiei dagokienez, negoziazio kolektiboa dagokion legean ezarritako igoera aplikatzeari eta ordainsari osagarriak zehazteari eta aplikatzeari buruzkoa baino ezin da izan, eta azken horiei dagokienez, ezin dira aldatu Legeak ezarritako ordainsari-kontzeptuak.

3. Argi eta garbi ezarritako jurisprudenzia-irizpidea da toki-funtzionarioen lan-baldintzak zehazteko akordioetan aurreikusitako erretiro aurreratuagatiko haborokinak (edozein izen dutela ere) ordainsari-izaera dutela, eta, beraz, toki-administrazioko funtzionarioen ordainsariari buruzko irismen orokorreko lege-arauren batean oinarritzen diren heinean soilik jo daitezkeela zuzenbidearen arabekoak direla. Egoera hori ez da gertatzen indarrean dagoen legediarekin.

4. Indarrean dagoen araudiaren eta jurisprudenziaren argitan, erretiro aurreratuagatiko pizgarrien, premisoaren edo haborokinen asistentzia-izaerarik ezaren ondorioz, horiek ezartzeak gainditu egiten ditu funtzionarioek negoziazio kolektiborako duten

eskubidearen mugak, ez baita egokitzen EPOEren 37.1 artikuluan zerrendatutako ezein gaitan. Horrenbestez, horiek ezartzeak toki-administrazioetako funtzionarioen ordainsari-araubidea aldatzea dakar, eta horrek ez du beharrezko lege-estaldurarik. Hori dela eta, horiek ezartzen dituzten akordioak baliogabeak eta ez-eraginkorrak dira, EPOEren 38.3 artikulua ezartzen duen bezala.

...”.

Horregatik guztiagatik, Idazkari Kontu-hartzaile honek ondorio hauek ematen ditu:

### **Ondorioak**

- Anoetako erretiro aurreraturako pizgarriei buruzko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planean aurreikusitako erretiro aurreratuagatiko haborokinak (edozein izen dutela ere) ordainsari-izaera du.
- Haborokin hori Zuzenbidearekin bat datorrela ulertu ahal izateko, toki-administrazioko funtzionarioen ordainsariei buruzko irismen orokorreko lege-arauren batean oinarritu behar da, eta hori ez da gertatzen indarreko legeriarekin; izan ere, gizarte-laguntza horrek ez du laguntza-izaerarik, Auzitegi Gorenak aurreko txostenean aipatutako gaiari buruz emandako jurisprudentziaren arabera.
- Erretiro aurreratuagatiko pizgarriek, sariak edo haborokinek ez dute beharrezko lege-estaldurarik eta, beraz, horiek ezartzen dituzten akordioak, planak edota programak baliogabeak eta ez-eraginkorrak dira, EPOEren 38.3 artikulua ezartzen duen bezala.
- Bidezkoztat jotzen da Anoetako erretiro aurreraturako pizgarriei buruzko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana indargabetzea.

Hori da zuzenbidean oinarrituta idazten dudana txostena, idatzi litekeen izaera bereko eta iritzi ezberdineko bestelako txostenen kalterik gabe.

...].

Ondoren, Idazkari Kontu-hartzaileak adierazi du gainerako udalerrri gehienek ere jubilaziorako primak indargabetzeko neurriak hartzen ari direla, adibidez, Zumaia, Zarautz, Mondragoi, Hernani, Andoain...

Aurrekoak entzunda, eta Idazkari Kontu-hartzaileak esandakoarekin ados, Udaltzakoak, aho batez, honakoa onartu du:

**EBAZPENA**



ANOETAKO  
UDALA

**LEHENENGOA.** 2022ko ekainaren 16tik indarrean dagoen Anoetako Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa indarrrik gabe uztea.

**BIGARRENA.** Erabaki honek ez dio eragingo aurretik emandako ebazpenen bidez aitortutako primak kobratzeko eskubideari.

**HIRUGARRENA.** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

### ALKATETZA

#### 3.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2023ko azaroaren 15etik 2023ko abenduaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### ANTOLAKUNTZA

#### 4.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

#### 638. DEKRETUA

2023.12.12.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

#### Prozedura

Fotokopien zerbitzu-kontratua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
244422881	2023.11.08.	260,60 €

#### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abenduaren 12an egindako eragozpenezko txostena.

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu

kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.

- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

### 639. DEKRETUA

2023.12.12.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

#### Prozedura

Serbidorearen segurtasun kopien mantenua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23112310	2023.11.02.	97,31 €

#### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abenduaren 12an egindako eragozpenezko txostena.

- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilia. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatu dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

### 640. DEKRETUA

2023.12.12.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEG. Y REAS SA	A28141935

#### Prozedura

Udaleko erantzukizun zibila eta udalaren eraikinen aseguruia

Faktura	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1385	2023.11.08	8.856,11 €

#### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abenduaren 12an egindako eragozpenezko txostena.

Anoetako Udalak ez du kontraturik esleitu, ezta formalizatu ere, Mapfre España enpresarekin. Horren kontra Idazkari Kontu-hartzaile honek eragozpenezko txostenak egin zituen, 2021eko urriaren 27an, 2022ko abenduaren 1ean eta 2023ko maiatzaren 30ean. Orain, 2022an gertatu zen bezala, aseguru poliza automatikoki berritu da eta ez da inolako neurririk hartu aldez aurretik egoera hau konpontzeko. Hortaz, berriro ere eragozpenezko txostena egiten du gaurko datarekin Idazkari Kontu-hartzaileak, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarrabidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

## **MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

### **GALDE-ERREGUAK**

#### **5.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez dago galde erregurik.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:07tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Erika Sagarzazu Camino